



2025

# SORALUZEKO XL. IDAZLAN LEHIAKETA

## EGILEAREN DATUAK

KATEGORIA: \_\_\_\_\_ GOITIZENA: \_\_\_\_\_

LANAREN IZENBURUA: \_\_\_\_\_

EGILEAREN IZEN-ABIZENAK: \_\_\_\_\_

TELEFONOA: \_\_\_\_\_ HELBIDEA: \_\_\_\_\_

## LEHENA: Parte hartzea.

Soraluzen jaiotakoek edo Soraluzen bizi zein bertan ikasi edo lan egiten dutenek har dezakete parte.

## BIGARRENA: Lanen ezaugarriak.

1.- Lanak euskaraz idatzitakoak, jatorrizkoak, inoiz argitaratu gabeak eta beste inongo lehiaketetan saririk jaso gabeak izango dira. Itzulpenik ere ez da onartuko.

2.- Lanak txukun, garbi eta modu ulergarrian aurkeztuko dira. Arau hau betetzen ez dutenak zuzenean baztertuko dira.

3.- Luzera eta sariak:

	<b>Ikasmaila edo jaioturtea</b>	<b>Luzera</b>	<b>1.saria</b>	<b>2.saria</b>	<b>3.saria</b>
<b>A maila</b>	LH 3-4 (2016 eta 2015)	1-2 orrialde			
<b>B maila</b>	LH 5-6 (2014 eta 2013)	1-2 orrialde			
<b>C maila</b>	DBH 1-2 (2012 eta 2011)	2-4 orrialde			
<b>D maila</b>	DBH 3-4 (2010 eta 2009)	2-4 orrialde			
<b>E maila</b>	2008 eta lehenago	3-10 orrialde			

4.- Gaia: librea izango da.

5.- Epaimahaia: Soraluzeko Euskara Batzordeak aukeratutako pertsonak osatuko dute.

6.- Gutxieneko maila: Epaimahaiaren iritziz, talderen batean aurkeztutako lanek gutxieneko mailarik ez balute, sariak hutsik geratuko lirateke.

## HIRUGARRENA: Lanak aurkezteko epea.

Lanak aurkezteko epea 2025eko maiatzaren 30era artekoa izango da.

## LAUGARRENA: Lanak nola aurkeztu.

Idazlanak izenik jarri gabe aurkeztuko dira eta izenaren ordezkari goitizena jarriko da.

- A, B, C eta D mailak: Idazlanaren atzealdean, eskuorriko honetako EGILEAREN DATUAK atala beteta eta grapaz josita aurkeztuko dira.
- E maila: Kartazal handi batean aurkeztuko dira lanaren ale bat eta sobre txiki bat kanpoan egilearen goitizena eramango duena eta barruan EGILEAREN DATUAK atala beteta.

## BOSGARRENA: Lanak nora bidali.

- A, B, C eta D mailak: ikastetxean bertan entregatuko dituzte.
- E maila: Udal liburutegian entregatuko dituzte.

## SEIGARRENA: Sariak.

Maila bakoitzeko hiru lanik onenek saria jasoko dute.